

Boiro eta A Pobra do Caramiñal

Kontatu al dizuet erdi galiziarra naizela? Nire ama Boiron jaio zen, Arousako itsasadarreko herri batean. Aitite itsasoan zegoela, hilabeteak igaro zituen alaba ezagutu barik. Familiako gizon gehienak marinela ziren. Behin nire birraitite Manuel Bilboko portura bisitatzea joan zen nire birramama Celsa. Bizkaiko industriaren loraldiak liluratuta, senarrari esan zion: “Hemen etorkizun hobea izan dezakegu”. Barakaldora migratu ziren hiru alabekin, suhiekkin eta lehenengo lobarekin, nire amarekin. Galiziako Zentroak bizitza errazten zuen pisu batean egokitu ziren, denok elkarrekin, senar-emazte bakoitza etxe bat erosteko gai izan zen arte.

Uda-garaian, familia osoa Boirora itzultzen zen oporrak pasatzera. Arousa udaldi gune bilakatu zen Bilbo bezalako industria hirietara migratutako familientzat. Etxebizitza berriez gain, taberna kopurua ere biderkatu egin zen; gehienak droga-trafikoa estaltzeko balio zutela azaldu zidan aititek txikia nintzela. 90eko hamarkada *Nécora* operazioaren garaia zen. 1998. urtean ere albiste izan zen Boiro, Ramon Samperdo idazle tetraplegikoak han gauzatu baitzuen hiltzeko eskubidea.

Niretzat Boiro hondartza, janari goxoa eta kanta alaien (*Bailaches Carolina, bailaí sí señor...*) sinonimoa zen. Askatasunaren sinonimo. 13 urterekin Boiron hasi nintzen parranda egiten eta ligatzen.

Egun Googlen Boiro teklatzen baduzue, Wikipedia eta Udalaren sarreraren ondoren, 2017. urteko abenduaren 29ko albiste bat topatuko duzue: “*La joven de Boiro denunció que el detenido intentó meterla a la fuerza en un maletero amenazándola con un cuchillo*”.

Urtarrilaren 1ean esnatu, Twitterren sartu eta albiste batek eragindako hotzikarekin hasi dut urteberria. A Pobra do Caramiñalen –Boiro ondoko



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Urtarrilaren 1ean esnatu, Twitterren sartu eta albiste batek eragindako hotzikarekin hasi dut urteberria. A Pobra do Caramiñalen –Boiro ondoko herria– 2016an desagertutako udatiarraren, Diana Queren, hiltzailea da Boiroko neska bahitzen saiatu den gizona. Gazte horrek ihes egitea eta poliziarengana jotzea lortu zuen

herria– 2016an desagertutako udatiarraren Diana Queren hiltzailea da Boiroko neska bahitzen saiatu den gizona. Gazte horrek ihes egitea eta poliziarengana jotzea lortu zuen.

Gertakari beldurgarri batekiko gertutasunak, “biktima ni izan ninteke” sentsazioak, barrua astintzen digu. Albiste benetakoa bihurtzen da, gorpuztu egiten da.

Diana Quer desagertu eta astebete ondoren Boiron egon nintzen. Gure auzoko paretak bere argazkiaz josita topatu nituen. A Pobra do Caramiñaleko urmaletan helikopteropean bainatu nintzen. Nire amamak, *Telecinco* piztuta, “neska gizajoa” errepikatzen zuen etengabe, sasi-kazetariak familiaren trapu zikinak zabaltzen zituzten bitartean. Nire aititek haxe erantzuten zuten: “Ez da bizirik agertutako, gizon zerriren batek hil du”.

Orain ni naiz Diana Quer burutik kendu ezin nabilena. Nire memorian Nagore Laffage du bizilagun. Sanferminetan eta Malagako Ferian talde-bortxaketak salatutako bi neskak ere ditut gogoan. Hedabideek eta justiziak bien sinesgarritasuna eta morala ezbaian jarri dituzte. Bizirik diraute, baina nola sendatu epai publikoaren zauriak?

Bortxatua izan ala hil. Hil ala susmopean bizi. Txikitatik jasotzen dugun abisu horri terrore sexuala deitu dio feminismoak. Nire amamak, *Telecinco*-ko albistegia piztuta, maiz esaten dit: “Azkenean ezin izango duzue etxetik bakarrik atera”. Nerea Barjola ikerlariak gogoratzen du Alcazereko krimenen ondorioz neska belaunaldi oso batek auto-stop egiteari utzi ziola. Auto-defentsa bidelagun, gure askatasuna defendatzeko diskurtsoa eta baliabideak garatzen eta konpartitzen ditugu feministok. Diskurtsoa argi daukat. Baina nire gorputzak hotzikara sentitzeko, izua onartzeko beharra dauka. ■